

ADIERAZPEN PUBLIKOA

AULKI ZURIAK

Hiritar asko ez gaude batere ados gaur egungo politikariekin. Oso maiz inolako baliorik gabeko eztabaida politikoak ikusi behar dugu, ardura ditugun gauzetik urrun dauden eztabaidak. Mezu hutsik beterik dauden hauteskunde kanpainak ere jasan behar ditugu, eta hauetan egiten dituzten promesak lotsarik gabe hausten dituzte geroxeago. Diru publikoa askotan gaizki erabiltzen dute, eta honen ondorioak inork ez ditu onartu. Gutaz lau urtero bakarrik gogoratzen dira, eta honexegatik guztiz erabilia sentitzen gara. Oso maiz ere politikarien arteko irainak, mesprezuak eta deskalifikazioak entzun behar ditugu, politikari haien artean udal aulkiak, gobernu autonomoetako kontseilaritzak edo ta Espainiako gobernuko ministraritzak banatu ondoren ahazten direnak. Erabat ezindurik sentitzen gara, alternatiba anitzak desagertzen eta betiko alderdi politikoak beren pribilegioak mantentzen ikusten dugunean. Azken finean, engainatzen gaituzten ikustez erabat nazkaturik gaude.

Honen aurrean, hiritar askok botu zuriz, baliogabetuaz edo ta boturik eman gabe ezadostasuna adierazi nahi izan dugu. Hala ere, aukera hauexek baliorik gabe gelditu dira, honako arrazoi hauengatik:

- a) Komunikazio bideek aukera hauei buruz ez dute ezer esan, hiritar askok erabili badituzte ere.
- b) Aukera hauek ez dute azken finean ezertarako balio. Oso argi ez dauden hainbat zeresan dute bakarrik : kastigu botuak, egoerarekiko adostasun botuak, botu emaileei egoera berdin dien botuak, zein alderdiari botua eman ez dakitenean botuak, botua eman nahi ez dutenen botuak, agindu politiko bati erantzuten dioten botuak, etabar.

Egoera honi erantzuna emateko, hiritar talde batek hauteskundeetan egotea erabaki dugu, Parlamentuan lortu ditzakegun aulkiak hutsik uzteko eta honen ondorioz diru laguntzak eman diezaiokegun ez onartzeko asmoz.

Ekimen honekin, honako hau lortu nahi dugu:

- c) Gaur egungo politikariekin ados ez gauden hiritarren iritzia eta politikari hauek inolaz ere ordezkatzeko gaituztela erakustea.
- d) Komunikabideen eta gizarte osoaren harreta hartzea, ekimen berri berri eta demokratiko batez. Honela, gaur egungo ordezkartza politiko sistemari buruzko eztabaida publikoa sortzea.
- e) Gaur egungo politikari eta alderdi politikoei deia egitea, beren zeregina errespetu eta arretaz egiteko, hiritarrok benetan parte hartuko dugun gobernu eta lege ekimenak sortzeko, lau urtero botu emateaz gain.

Prozesu honen azken helburua hauteskunde legea aldatzea izan behar da. Lege honek politikarien gaur egungo lanarekin ados ez gauden hiritarrok gaudela kontutan hartu behar du, botu zuriak parlamentuen aulkiak hutsik geldituko direla esan nahi izango duela onartuz. Honela, hauxe izango litzateke politikariekin ados ez gauden hiritarren botu berezi eta baliogarria. Aulkiak Zurian alderdia desagertu egingo da helburu hau betetzen denean.